

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantzaren aldaketari behin betiko onarpena ematea

Udal honek, 2019ko urriaren 10eko osoko bilkuran, Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergaren ordenantzaren espedienteari hasierako onarpena eman zion. Espediente hori jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onartzen da. Beraz, Toki ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauak 16.4 artikuluan xedatutakoa betez, argitaratzen da indarrean sar dadin.

Jarduera Ekonomikoen gaineko zergaren Ordenantza Fiskala

I. Xedapen orkorrak

1. artikulua

Udala honek, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunei buruzko foru arauan eta zerga honi buruzko foru arauan xedatutakoaren arabera, jarduera ekonomikoen gaineko zergari buruzko zerga exijitzen du ordenantza honetan zehaztutakoaren arabera, berroren zatiezina aplikagarria den tarifa eta zergabilketa epea zehazten dituen Eranskina izanik.

2. artikulua

Ordenantza udalerrri osoan aplikatuko da.

II. Zerga-egitatea

3. artikulua

Zerga honen zerga-egitatea hauexek da: udal mugartean enpresa, profesional nahiz artistek burutzen dituzten jarduerak, areto jakin batean egiten direlarik nahiz bestela, eta zergako tarifetan zehaztuta nahiz zehaztu gabe egon.

Zerga hori dagozkionetarako enpresa-jardueratzat joko dira abelazkuntzari dagozkionak, izaera independentea dutenean, meatzaritzakoak, industrialak, merkataritzakoak eta zerbitzukoak. Ez dira, beraz, halakotzat joko nekazaritza-jarduerak, inoren menpeko abelazkuntzakoak, basogintzakoak eta arrantzakoak, eta horietako bat ere ez da zerga-egitatea izango, zerga honi dagokionez.

Aurreneko paragrafoan xedatutakoaren ondoretarako, ondorengo kasu hauetakoaren batean sartzen diren ganadu-buruen multzoa joko da abelazkuntza independentetzat:

a) Funtsean ganaduaren jabeak nekazaritzarako edo basogintzarako ustiatzen ez dituen lur sailetan alatu edo bazkatzen den ganadua.

b) Landa lursailetatik kanpoko abeltegietakoa.

c) Ibiltaria edo udalaz mugez gaidikoa.

d) Nagusiki hazleku duen funtsean sortzen ez diren pentsuekin elikatzen dena.

4. artikulua

1. Jarduera bat enpresa, profesional edo artisten jardueratzat joko da norberaren kabuz ekoizpen-medioak eta giza-baliabideak antolatzea eskatzen duenean, edo horietako batzuk nahiz besteak, ondasun eta zerbitzuen ekoizpen eta banaketan parte hartzeko helburuz.

2. Zergapetutako jardueren edukia zergaren Tarifetan zehaztutakoa izango da.

5. artikulua

Zergapetutako jarduerak burutzen direla zuzenbidez onargarri den edozein medioren bidez frogatuko da, eta, bereziki, Merkataritza Kodeko 3. artikuluan adierazitako enbidez.

6. artikulua

Ondorengo jarduera hauek ez dira zerga-egitateak eta, beraz, ez daude zerga honi lotuta:

1. Nekazaritzakoak, mendeko abeltzaintzakoak, basogintzakoak eta arrantzakoak.
2. Transmisio data baino gutxienez bi urte lehenago inmobilizatu gisa behar bezala errol-datuta ageri diren enpresetako aktibo finkoan integratutako ondasunak inorenganatzeara, eta saltzailearen erabilera partikular eta pribatuko ondasunak saltzea, baldin eta aldi berean horretan erabili izan baditu.
3. Lan pertsonal edo zerbitzu profesionalean ordainetan jasotako produktuen salmenta.
4. Establezimendua apaindu edo dotoretsu beste asmorik gabe artikulua erakustea. Aitzitik, zergari lotuta egongo da bezeroei oparitzeko artikuluen erakusketa.
5. Txikikazko salmenta denean, ekintza edo eragiketa bakan bat egitea.

III. Salbuespenak**7. artikulua**

1. Honako hauek egongo dira salbuetsita:

a) Estatuak, Euskal Autonomia Erkidegoa, Arabako Foru Aldundia eta udal erakundeak, eta estatuen organismo autonomoak eta lurralde administrazio horietako antzeko izaerako zuzenbide publikoko erakundeak.

b) Beren jarduera hasten duten subjektu pasiboak, jarduera hori bideratzen deneko lehenengo bi zerga-ekitaldietan. Ez da jarduera hasieratzen joko honako egoera hauetan:

Ondorio horietarako, jarduera bat ez da hasitzat joko, baldin eta lehenengo beste titulartasun batekin gauzatu bada. Egoera hori, besteak beste, jarduera adarrak batzean, zatitzean nahiz gehitzean joko da.

c) Eragiketetan 1.000.000 euro baino gutxiagoko bolumena duten subjektu pasiboak.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunei dagokienez, establezimendu iraunkor bidez aritzen direnentzat baino ez da izango salbuespena, betiere eragiketetan 1.000.000 eurotik beherako bolumena badute.

Edonola ere, salbuespen hori aplikatzeko, ezinbestekoa izango da subjektu pasiboek ez izatea, zuzenean edo zeharka, letra honetan jasotzen den eragiketa-bolumenaren baldintza betetzen ez duten enpresen ehuneko 25 baino gehiagoko partaidetzarik, non eta ez diren arrisku kapitaleko sozietate edo funtsak, hain zuzen ere Sozietatearen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 77. artikuluetan zehazten direnetakoak, baldin eta partaidetza sozietateen xedea betetzearen ondorio bada.

Letra honetan ezarritako salbuespena aplikatzeko erregela hauek hartu behar dira kontuan:

1. Eragiketa bolumena sozietateen gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 5. artikuluko 1. idatz zatian ezarritakoaren arabera kalkulatu da (37/2013 Foru Araua, abenduaren 13koa, sozietateen gaineko zergari buruzkoa).

2. Eragiketa bolumena, persona fisikoaren errentaren gaineko zergaren edo sozietateen gaineko zergaren peko subjektu pasiboen kasuan edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren peko zergadunen kasuan, izango da haiei dagozkien aitortzen aurkezteko epea zerga betebeharra sortu aurreko urtean amaiturik duten zergen zergaldikoa. Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatutako sozietate zibilen eta erakundearen eragiketen bolumena izango da zerga honen ziozko zorra sortu den urtearen azken aurreko urtekoa. Zergaldi hori urte naturala baino laburragoa izan bada, eragiketen bolumena urtebeteraino igoko da.

3. Subjektu pasiboaren eragiketen zenbatekoa kalkulatzeko, hark egindako jarduera ekonomikoaren multzoa hartuko da kontuan.

Erakundea, Merkataritzako Kodearen 42.artikuluaren arabera, sozietate talde bateko kidea bada, lehenago aipatu magnitudeak talde horretako erakundearen multzoari egokituko zaizkio.

4. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunen kasuan, Espainian dauden establezimendu iraunkorren multzoari egotz dakiokkeen eragiketa bolumena hartuko da kontuan.

d) Gizarte Segurantza, mutualitateak eta montepioak kudeatzen dituzten erakundeak, indarrean dagoen legediarekin bat etorritzat eratuak.

e) Ikerketa erakunde publikoak, estatuaren, autonomia erkidegoen, Arabako Foru Aldundiaren edo toki erakundearen funtsen kargura ordaintzen diren irakaskuntzarako zentroak (maila guztietan), edo ongintzazko edo erabilera publikoko fundazioak; era berean, irabazteko xederik ez duten irakaskuntzarako zentroak (maila guztietan), hezkuntza itunaren araubidean badaude, nahiz eta ikasleei liburuak edo idazmahaiko artikulua eman, edo pentsio erdiko edo barnetegiko zerbitzuak eskaini, edo, salbuespen gisa, zentroan bertan saldu irakaskuntza horretarako tailerretako produktuak, baldin eta salmentaren zenbatekoa (partikularrentzako edo hirugarren pertsonentzako erabilgarria izan gabe) eskusiboki lehengaiak eskuratzeko bada, eta zentroa mantentzeko.

f) Ezindu fisiko, psikiko eta sentsorialen elkarte eta fundazioak, irabazteko xederik gabek, ezinduak irakatsi, hezi, birgaitu eta zaintzeko gauzatzen dituzten pedagogia, zientzia, asistentzia eta enplegu jarduerak direla eta, nahiz eta horretara egokitutako tailerretako produktuak saldu, baldin eta salmenta horren zenbatekoa (partikularrentzako edo hirugarren pertsonentzako erabilgarritasunik gabea) eskusiboki lehengaiak eskuratzeko edo establezimendua mantentzeko bideratzen bada.

g) Gurutze Gorria eta arauz zehazten diren antzeko beste erakunde batzuk.

h) Nazioarteko ituna edo hitzarmen dela bide salbuespena aplikatu dakiekeen subjektu pasiboak.

i) Irabazteko xederik gabeko erakundeak, irabazteko xederik gabeko erakundearen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauan ezarritakoari lotura eta bertako baldintzak betetzeko gero.

2. Aurreko paragrafoa a), d), g) eta h) letretan zehaztutako subjektu pasiboek ez dute aurkeztu behar zergaren matrikulako alta aitortzea.

3. Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Diputatuak zehaztuko du aurreko 1. paragrafoa c) idatz zatian zehaztutako salbuespena zein kasutan eskatuko den Arabako Foru Aldundiari zuzendutako komunikazio batetan; komunikazio horretan, idatz zati horretan salbuespena aplikatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla ziurtatu beharko da.

Horretarako, Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Diputatuak finkatuko du nolakoa izan behar den komunikazioa eta noiz eta nola egin behar den, bai eta zer kasutan aurkeztu behar den baliabide telematikoen bitartez ere.

Aurreko 1. idatz zatiko c) letretan zehaztutako salbuespenean eragina eduki dezaketen aldakuntzak direla eta, zerga ordenantza honetako 11. artikuluko 2. idatz zatiko hirugarren paragrafoan ezarritakoa aplikatuko da.

4. Artikulu honetako 1. idatz zatiko b), e) eta f) letretan arautzen diren onurak Udalak emango ditu bidezkoa denean, subjektu pasiboaren berariazko eskaera izapidetu ondoren.

IV. Subjektu pasiboa

8. artikulua

Zerga honen subjektu pasiboak dira udalerrian zerga gai den jardueraren bat egiten duten persona fisikoak eta juridikoak eta Arabako zergei buruzko foru arau orokorreko 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen diren erakundeak.

9. artikulua

Zerga kuota kalkulatzeko indarrean dauden uztailaren 23ko 573/1991 Foru Dekretu arautzailerak onartutako zergaren tarifak, eta udalak zehaztutako koefizienteak, indizeak eta hobariak eta ordenantza honen eranskinean xedatutakoak izango dira.

V. Zergaldia eta sortzapena

10. artikulua

1. Zergaldia urte naturalarekin bat dator, alta aitortpenak direnean izan ezik; horrelakoetan, zergaldiaren jarduera hasi denetik urtea bukatu artekoa izango da. Horrek ez du eragotziko artikulua honetako 3. paragrafoan xedatutakoa ezartzea.

2. Zerga zergaldiaren lehen egunean sortuko da, eta kuota murriztezinak izango dira, alta aitortpenetan jarduera hasi den eguna urtearekin bat ez datorrenean izan ezik; horrelakoetan, jarduera hasten den egunetik abenduaren 31 bitarteko egunen kopuruaren arabera proportzionalki kalkulatu da eta alta ematen den egun berean sortuko da.

3. Baja aitortpenen kasuetan, zergaldia urtarrilaren batetik baja aitortpena aurkezten den egunera artekoa izango da. Horrelakoetan, zergaldiaren lehen egunean sortuko da zerga eta kuota urtarrilaren batetik baja aitortpenaren egunera arte dauden hilen proportzioaren arabera kalkulatu da.

Aurreko paragrafoan aipatutako hilabeteen kopurua kalkulatzeko, baja-aitortpena aurkezten den hila osoa balitz bezala zenbatuko da.

Paragrafo honetan xedatutakoa ez da aplikatuko jarduera hasten den egunetik baja-aitortpena egiten den egunera arte 12 hilabete igaro ez badira. Horrelakoetan, baja-ematearen eguna jarduera hasiz geroztik baja-aitortpena aurkezten den urteko abenduaren 31ra pasako da.

4. Ikuskizunei dagokienez, kuota saio bakanen arabera ezarritakoak direnean, sortzapena saio bakoitzeko sortuko da, eta egoki diren aitortpenak aurkeztu beharko dira arauak ezarritakoari jarraiki.

VI. Kudeaketa

11. artikulua

1. Zerga beraren matrikularen bidez kudeatuko da. Urtero prestatuko da matrikula hori eta bertan datu hauek bilduko dira: subjektu pasiboak, jarduera ekonomikoak, zerga kuota, eta, behar den kasuetan, foru errekarria. Matrikula jendearen eskuragarri legoke.

2. Subjektu pasiboek dagozkien alta aitortpen guztiak aurkeztu behar dituzte, eta zerga ordenantza honen 11.1 artikuluari jarraikiz, erroldan sartzeko beharrezko elementu guztiak adierazi beharko dituzte, arau ezartzen den epean. Jarraian, eskumena duen administrazioak dagokion likidazioa egingo du, eta subjektu pasiboari jakinaraziko zaio, eta horrek, dagokion sarriera egin beharko du. Halaber, subjektu pasiboek zergapetutako jarduerak gauzatzean sortuko diren eta zerga honen ondorioetarako garrantzia izango duten aldaketa fisikoak, ekonomikoak eta juridikoak jakinarazi beharko dituzte arau bidez ezarriko diren epe eta terminoetan. Horiek horrela, jakinarazpen horietan nahitaez adierazi beharko da jarduerak gauzatzen diren higiezin katastroko erreferentzia.

Zehazki, zerga ordenantza honen 7. artikularen 1. atalaren c) letran zehaztutako salbuespena aplikatu ezin zaien zergadunek, eragiketa bolumena adierazi beharko diote Arabako Foru Aldundiari. Era berean, subjektu pasiboek eragiketa bolumenean izandako aldakuntzen berri eman beharko dute, baldin eta aldakuntza horrek berarekin badakar zerga ordenantza honen 7. artikularen 1. atalaren c) letran zehaztutako salbuespena aplikatzearen edo ez aplikatzearen aldaketa, nahiz ordenantza fiskal honetako eranskinean zehaztutako haztapen koefizientea aplikatzearen ondorioetarako kontuan izan beharreko zatiko aldaketa.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak ezarriko ditu komunikazio horien edukia, epea eta aurkezpen modua, baita bide telematikoz aurkeztu beharko diren kasuak ere.

3. Erroldetako datuak sartu, kendu edo aldatzea, zerga-ikuskatze jarduketan edo alta-emate eta komunikazioen formalizazioaren ondorio direnak, administrazio-egintzat joko dira eta erroldaren aldaketa ekarriko dute. Matrikulan erroldetako datuekin lotuta dagoen edozein aldaketa egiteko, aldeztu aurretik erroldako datuak aldatu beharko dira ezinbestez.

4. Zerga hau autolikidazioaren bidez egiteko eskatu ahal izango da, arauen bidez ezarriko diren terminoetan.

12. artikulua

1. Udal honek ditu kudeaketa, likidazio, ikuskatze eta bilketa ahalmenak, bai araututako epean, bai premiamendu bidean.

2. Udalaren aginpidea izango da, halaber, errolda jendaurrean jartzea, erreklamazioak ebatzea, zerga kobratzea, salbuespenak eta hobariak ezartzea, eta, azkenik, zerga honekin lotutakoetan zergadunari laguntza eta informazioa ematea.

3. Salbuespenak eta hobariak emateko edo ez emateko, gainera, aurretik Foru Aldundiak txosten teknikoa egin behar du, eta ondoren, emandako ebazpenaren berri ere eman beharko zaio.

13. artikulua

Jardueren kalifikazioen eta kuoten zehaztapenaren aurka aurkeztutako errekurso eta erreklamazioak Arabako zergei buruzko foru arau orokorraren 229. artikulutik 246.ra bitartekoetan xedatutakoari jarraiki eraenduko dira, eta Arabako Foru Aldundia izango da berraztertze errekursoa ebatzteko organo eskuduna. Erreklamazio horiek aurkezteak ez du egintzen betearazi beharra eragotziko.

14. artikulua

1. Udal bakoitzari dagozkion erroldak Foru Aldundiak egingo ditu eta ondoren haiei bidaliko dizkie.

2. Foru Aldundiak landutako errolda jasotakoan, jendaurrean jarriko da hamabost egunez, zergadunek azter dezaten eta egoki deritzeten erreklamazioak egin ditzaten, halakorik nahi izanez gero.

15. artikulua

Jendaurrean jartzeko epea amaitutakoan eta erreklamazioak ebatzi ostean, Arabako Foru Aldundiari bidaliko zaio emaitzaren egiaztagiria, hark onar dezan.

Aldi baterako xedapena

Foru Arau hau indarrean sartzean, uztailaren 23ko 573/1991 Araugintzako Foru Dekretuaz onartutako tarifen bigarren atalari egindako 1. ohar komunean lehen araututa zegoen jarduera hasteagatik kuotako hobaria aplikatzen ari dira zenbait subjektu pasibo. Subjektu pasibo horiek, foru arau honetan xedatuari jarraituz zerga ordaintzetik salbuetsita ez badaude, hobari hori aplikatzen jarraituko dute, ohar komun horretan araututako baldintzetan, harik eta hobaria aplikatzeko dagokien aldia bukatzen zaien arte.

Azken xedapena

Ordenantza hau eta eranskina ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta indarrean jarraituko du berriaz aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Eranskina

Lehenengo araua.

Zerga-kuota (Udaleko gutxieneko kuota) zergapeko egitatean dauden jardueri zergako tarifak (indarrean dagoen Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 23ko 573/1991 Legegintzako Foru Dekretuak onartutakoak) eta ordenantza honetan araututako eta udalak onartutako koefizienteak, indizeak eta hobariak aplikatutakoa izango da.

Bigarren araua. Eragiketa bolumenaren arabera zehaztutako haztapan koefizienteak.

Uztailaren 19ko 43/1989 foru arauaren 9.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, zergaren tarifetan zehaztutako udaleko gutxieneko kuotak jarraian azaltzen den taulan jasotako haztapan koefizienteak aplikatuta gehituko dira:

ERAGIKETEN BOLUMENA (EUROAK)	KOEFIZIENTEA
1.000.000,00 eta 6.000.000,00 euro bitartean	1,20
6.000.000,01 eta 10.000.000,00 euro bitartean	1,22
10.000.000,01 eta 50.000.000,00 euro bitartean	1,24
50.000.000,01 eta 100.000.000,00 euro bitartean	1,27
100.000.000,00 euro baino gehiago	1.30
Eragiketen bolumenik gabe	1,25

Hirugarren araua.

Uztailaren 19ko 43/1989 foru arauak 9.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, udalerrri honetan egindako jarduera guztiengatik Jarduera ekonomikoen gaineko zergako tarifako kuota txikiak, bigarren arauan ezarritako koefizienteak aplikatzeagatik aldatutakoak, handitu egingo dira 2,20 koefizienteak aplikatuz.

Laugarren araua.

Uztailaren 19ko 43/1989 foru arauak 10.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, udalerrri honetan egindako jarduera guztietarako, 1,01 bakarra den kokapen koefizienteak zehazten da.

Bosgarren araua.

Ordaintzeko aldia: irailaren 15etik azaroaren 15era.

Ozaetan, 2019ko abenduaren 3an

Alkatea

IGOR MEDINA ISASA